

## HITZAK ETA EKINTZAK

Bedel itxura hartu omen zion John R. Searlek Oxfordeko *Corpus Christi*-ko lorategia gurutzatzen lehen aldiz ikusi zuenean, besapeetan *Larousse* eta *Oxford English Dictionary* hiztegitzarrak zeramatzala. 1952 edo 53a izango zen. Gizon hura topatzeak eragin ikaragarria izango zuen Searleren bizitzan; bere lana ezagutzeak hizkuntza ikertzea bizibide dugun besteongan ere ez du eragin makala izan. Izena John L. Austin zuen. Eta filosofo gisa Ingalaterrako mugetatik at ezagun egin zuen tesia lelo honetan labur daiteke: «Hizkuntza ekintza da». Leloa baino garrantzitsuagoa berak abiatu eta bere ikasle Searlek garatu zuen *hizketa-ekintzen teoria*: hizkuntzaren analisi semantiko-pragmatikorako teoria berria.

Austinengandik aurrera garbi dago esaldiak ekintza mota bat direla. Ekintza bereziak, giza abereok soilik egin ditzakegunak (ekintza linguistikoak diren heinean), baina ekintzak nolana ere. Esaldiak, gainontzeko ekintzak bezala, zorionekoak ala zoritarrekoak izan daitezke, oportunoak ala inoportunoak, arrakastatsuak ala porrotera daramatenak, nahigabeko ondorio kolateralak ala gabeak... edozein giza ekintzak bezala egilearen erantzukizun morala inplikatzeko dutenak.

Guzti hau kontuan hartuta, gauzak argitu beharrean nahasi egiten dituela iruditzen zait «hitzetatik ekintzetara» pasatzearen inguruko eztabaidak. Zein ekintzabide demokratiko gelditzen da hizketa-ekintzetatik haratago? Ez ahaztu negoziazioa, independentzia deklarazioa, erreferenduma edota alderdi eta erakunde politikoek sorrera bera, guztiak direla hizketa-ekintzak. Eta hizketa-ekintza ez diren askok eta askok hizketa-ekintzaren batean dutela kausa. Horregatik, askoz zuzenago litzateke hitzetatik ekintzetara pasatzeaz hitzegitea baino, efektu gutxiko (hitzezko nahiz bestelako) ekintza sinboliko-folklorikoetatik helburuetara arrakastaz hurbil gaitzaketan (hitzezko nahiz bestelako) ekintzetara pasatzeaz hitzegitea.